

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: URA ETA ZABOR TASEN ETA UDAL KIROLDEGIKO ZERBITZUEN ERABILTZEAGATIKO TARIFEN ARLOAN LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2023 URTEA

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalen kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen helburua zera da, udalerriko giza talderik behartsuenentzat, karga ekonomikoa murrizteko edota deuseztatzeko balioko duen laguntzen udal-politika garatu eta gauzatzea, hau da:

- Ohiko etxebizitzako ura eta zabor-tasen ordainketa.
- Udal kiroldegia erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifak ekainetik irailera bitartean bakarrik ordainduko dira, biak barne.

Laguntzak aurreko ekitaldiko tasen/tarifen ordainketari dagozkion zenbatekoen gainean aplikatuko dira.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradunak izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Beasainen erroldatuta egotea laguntza eskatzen den zerbitzua erabiltzen hasten den egunean.
- Eskatzailearen bizikidetz-unitateak ez du gainditu behar oinarrietako 4.3 atalean ezarritako urteko diru-sarreraren eta ondarearen muga .

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

4.1 Tasen arloko laguntzak lortzeko

1. Egingako gastuaren % 100a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak eta ondarea Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren eta ondarearen mugan sartzen badira. Gehieneko zenbatekoa 450 €.
2. Egingako gastuaren % 75a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren 1 eta 1,5 muga artean sartzen badira eta ondarearen muga gainditzen ez badute. Gehieneko zenbatekoa: 350 €.
3. Egingako gastuaren % 50a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren 1,5 eta 2 muga artean sartzen badira eta ondarearen muga gainditzen ez badute. Gehieneko zenbatekoa: 250€
4. Bizikidetz-unitatetzat hartuko dira etxebizitzan erroldatutako pertsona guztiak.
5. Etxebizitza bakoitzeko eskaera bakarra egin ahal izango da.

4.2 Udal kiroldegiko zerbitzuen erabiltzeagatik tarifaren arloko laguntzak jasotzeko

1. Egindako gastuaren % 60a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak eta ondarea Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren eta ondarearen muga sartzen badira.

2. Egindako gastuaren % 30a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren 1 eta 1,5 muga artean sartzen badira eta ondarearen muga gainditzen ez badute.

3.- Ekainetik irailera bitarteko tarifak baino ez dira diruz lagunduko.

4.- Bizikidetz-unitatea zehazteko, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 25. eta 26. Artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio.

4.3 Urteko dirusarrerak eta ondarearen muga

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren muga, elkarbizitza unitateko neurriaren arabera, ondorengoa da:

- 1 pertsona: 14.078,70 €
- 2 pertsona: 18.078,48 €
- 3 edo gehiago: 19.998,36 €

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko ondarearen gehieneko muga, elkarbizitza unitateko neurriaren arabera, ondorengoa da:

- 1 pertsona: 37.543,20€
- 2 pertsona: 48.209,28€
- 3 edo gehiago: 53.328,96€

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Eskaerak aurkeztuko dira:

Aurrez aurre

iGunean, astelehentik ostiralera:

8:30-13:30

Posta arruntaren bidez

Telematikoki: www.beasain.eus

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratzen direnean, eskaerak aurkezteko epea irekiko da 2023ko irailaren 1etik 30era.

Ezarritako epetik kanpo egindako eskaera guztiak ukatuko dira.